

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

BERRI PAPERERA



AMAIA ZENTROA
Benito Perez Galdos Z/G
01002 Gasteiz
Araba
E.: araba@bertsozale.eus
T.: 945 01 05 05
www.bertsozale.eus/araba



Trebiñutik Laudiora

2016tik 2017ra egindako ibilbidea. Ekaitz Elorriagari elkarrizketa.

2016a ez da konturatu gabe pasatu. Trebiñun abiatu genuen, Kuadrilla artekoaren aurkezpena eta Batzar Orokorrekin. Ekaitz Elorriaga Arabako Bertsozale Elkartearen lehendakariarekin hitz egin dugun egitasmoaren inguruan.

2016an ABek beste 4 urtetarako berri zuen zure kargua. Seinale ona?

Egoera gora beheratsua izan ohi da Arabako tonika, eta hala ere pixkanaka proiektua egonkortu eta sistematizazio baten barruan neurri amankomunak hartzeko modua topatzen ari garelakoan naiz, ahalik eta egoera homogeneoena lortu bidean. Galderari erantzunez, ekindako proiektu ereduari jarraipena emango zaionaren seinale bat gehiago da, ene iritziz.

Zertan eragin du ABek 2016an? Eta 2017rako zein asmo?

Bi ildo nagusi izan dira urtean zehar jorratu nahi izan direnak, hurrengoan jarraipena izango dutelarik. Batetik bertsogintzaren dinamizazioa. Lehendik funtzionatzen zutenei jarraipena eman, eta ate ezberdinak jo nahian, egitasmo berriak ere eman dira aurrean. Denek ez dute nahi edota espero zen fruiturik eman baina bidea egiten laguntzen du horrek ere. Bagoaz ikusten jendea nola eragin dezakegun eta beharrezane

erantzunez, lortuko da helburura arteko bidea egitea.

Beste ildoak Elkartearen kasik kronikoa izan dugun aurrekontu defizitarioari buelta ematea izan da. 2016ko gogoeten ondorio, norantza berri bati ekin dio Elkarteak eta itxaropentsua da aurrean dugun zerumuga. Neurri ezberdinak hartu dira eta aurrera begira mantendu ezker, Elkartearen osasuna ezin hobea izango da.

Nahiago hemen utzi, film-aren trailerra bailitzan. Xehetasun gehiagorekin azalduko da guztia Batzar Orokorrean, Laudion. Bertan ikusiko zaitudalakoan, bazkide, eskerrik asko eta urte berria behar bezala hasi dezazula.



KOPLA

Ez da lurrinen anuntzio bat da txapelketa tarteko, ta "malaostia" aurpegia da epaileak beldurtzeko!



Argitalpenaren
laguntzaileak



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.alava.net



Gazteak martxan!

Udazkenean entrenamenduak eta ikastaroa, neguan sutondoko saioak.

Julen Zulaika

Amaitzera goazen udazken honetan, beste behin ere Arabako bertsolari eta gai-jartzaile gazteenekin (inork ez dezan hartu bere burua zahartzat eta kontu eske etorri), entrenamendu saioak eta ikastaro bat burutu ditugu Amaian. Bertsolariak Oihane Perea eta Julen Zulaikaren agindupean edo akuilu aurrean fin aritu dira dozena gazte inguru. Gai-jartzaileak Oier Suarezren eskutik ofizioa ikasi dute eta aurrera jarraitzeko asmoa adierazi dute. Asmoa jendaurreko jardunean akatsak zuzendu eta dohainak fintzea

zen. Honetarako izan ere, ezkutuko miraririk agertu ezean behintzat lan egitea baino ez dago eta horretan saiatu gara. Aurrera begira, esku artean bestelako erronkak ere baditugu, Arabako etorkizunari bidea egiteaz gain egungo plazetan aurpegi berriei leku egin eta jendaurreko jardunean ere haize berria sar dadin. Urrutira joan gabe, urtarrila eta otsailean zenbait afari goxo antolatu ditugu, sutondoaren berotan, bertsoaren beroaz gozatzeaz gain, bertsolari eta gai-jartzaile gazteei txinpartak ateratzeko asmoz.



Txapelketaren aginduetara

Asier Lafuente

Arabako Bertsozale Elkartearen dekretazoaren ondorioz 18 bertsolari kantatuko dute 2017ko Arabako Bertsolari Txapelketan.

29 bertsolari izena eman zuten eta urrian eta azaroan jokaturako kanporaketetan 6 etxera bidali ditu txapelketak. Lehiaren legea! Se com sa!

Beraz, urtarrilean hasiko den 2017ko Arabako Bertsolari Txapelketako bertsolari zerrenda itxita eta giltxapean geratu da. 2015ko 5 finalistek eta kanporaketetan sailkatutako 13 bertsolari kantatuko dute, hauexek: Manex Agirre, Iñaki Viñaspre, Oihane Perea, Xabi Igoa, Zigor Enbeita, Asier Otamendi, Andere Arriolabengoa, Iker Agirre, Rikardo Gz. de Durana, Paula Amilburu, Serapio Lopez, Peru Abarrategi, Izar Mendiguren, Jagoba Apaolaza, Felipe Zelaieta, Ander

Solozabal, Asier Rubio eta Jon Ruiz de Pinedo.

Lana badute 18 hauek. Urtarrilera arte entrenatu beharko dute (serio demonio eta egunero), antolakuntzak agindutako egunetan komunikabideen aurrean agertu beharko dute (dotore eta ondo orraztuta), bi aldiz kantatu beharko dute (ondo gainera, fundamentu handiarekin). Eta finalerako txartela ematen badiete ikuskizuna eskaini beharko dute Gasteizko Printzipal Antzokian.

Txapelketa urtarrilaren 21ean aurkeztuko da, Laudioko Areta auzoko El Tunel tabernan (35 urte betetzen dira Aiaraldeko bertso-eskola sortu zenetik, non eta El Tunel tabernan). Eta finala apirilaren 1ean jokaturiko da, Gasteizko Printzipal Antzokian.

Txapelketari AMEN!

EUSKARAZ KANTATU ETA BIZI NAHI DUGU

Uxue Diaz De Cerio

Azken hamarkadak munduko zazpi ozenotan eta hamaika itsasotan nabigatzen igaro eta gero ur gozoko urmael ertzean eman diot hasiera bizi berri bati. Jass! Lehorrean ere ez zaizkit misioak eta bilatu beharreko altxorrek falta, itsaslapur onenek bezala.

Nire azken abentura kontatuko dizuet. Arrrr! Txoroloro eta biok altxor preziatuetan preziatuenetako bat salbatu beharrean geunden eta bidean topa genitzakeen arriskuei aurre egiteko, jass! Gasteizko hamaika ikastetxetako 700 bat eskifaia gaztetxo martxan jarri genituen, bolilumak eskuan koplak idazten hasi ziren ikastetxetaz ikastetxerako laberintoa argitzeko pistak idatziz. Beraz, belak zabaldu, oihalak gora eta haizea nora gu hara joan ginen! Korrika, itsatranbian edota bizikleta ibiili ginen Txoroloro ta biok Arantzabela, Luis Elejalde, Barrutia, Ramon Bajo, Umandi, Angel Ganivet, Abendaño, Armentia, Toki Eder, Ikaibidea eta Lakuabizkarrako eskifaian koplak enkriptatuak deszifratzen.

Mendeetan zehar gure izan dena behin lapurtu ziguten, kanoikada batek zartatu zuen, baina gure esku zegoen berriz ere altxorra berreskuratzea. Beraz... Oztopo denei aurre egiteko gai izan ginen denok batera eta bidean pistarik galdu gabe. Aargs! Gurea zen altxorra, gurea zen euskararen giltza, geurea zen euskara!!



Aiaraldeko bertso-eskola

Tuneleko argia

Aiaraldekoak beti izan gara aldrebesak. Tunel barruan erditu, hazi eta indartu gara. Bizkarrek, Bertso Eskolako beteranoenak kontatuta dakigu ostiralero Aiaraldeko bertsolari eta bertsozaleak Aretako Tunel jatetxean elkartzen zirela afaltzeko. Ondoren ekiten zioten bertso-saioei. Hamaika puru -eta hamabi apuru- piztuko ziren mahaiaren bueltan. Inork huts egiten ez zuen zita ei zen. Jon Gerrero, Karla Santesteban, Emiliano Diaz, Iñaki Mendiguren, Txaber Errazti, Bizkar...

Orduko belaunalditik Serapio Lopez da geratzen den bakarra. Bizkarren ondotik, baranbioarrarena da beteranoaren titulua. Atzetik du Izar Mendiguren bazterrak nahasten. Aurten, gainera, Ainhoa Comas eta Julen Eizagirre batu dira zuhaitz geniologikora, Portugaleten egin zen Bertso Eskolen eguneko parrandaren ostean gure zubi zintzilikatura itzultzea erabaki dute; Asier Rubioren seriotasun eta umorearekin batera. Zoroetxe honi formaltasun puntu bat emateko Iñaki Cabezak (Alias Untxiburu) epaile izateko bidea hartu du, atera kontuak! Ez du lan makala Unai Mendibilek halako artaldea gidatzen. Gazta eta sagardo botilarik gabe, zail du gobernatzen. Nekez sartuko da hesi artera gozatzeko eta saltoka ibiltzeko mendi osoa ikusten duena! Saiakera ona, baina beranduegi. Laudioko Basalarrina elkartearen zein Amurrioko Kultur etxean, gehiegitan elkartzen dira Altubepeko sorgin eta aziak.

Edari magikoarekin edo gabe, ezin uka akelarrean gustura gaudenik. Aurten, gainera, haize freskoa dakargu. Freskoa eta iparraldekoa. Bertsozaleasuna eskualdean sustatzeko asmoz, Leitza eta Ipar Euskal Herriko bertso-eskolekin iritsi baizaigu Bertsotruk ekimenean parte hartzeko gonbita, bertsolaritzak eta bertso eskolak mugarik ez duenaren seinale; norberak jarri ezik. Abenduaren 23an izan genuen



aurreneko zita Leitza, nafar lurretan. Inguruari saltsa jartzea izango da gure lana; bakarka, taldean, puntuka... prest gaude piperra eta gatza soso kuadrillei gehitzeko!

Hasierako agurra baino ez da hau. Nola egutegia hala bertso-eskola koloretsu dugu. Urtea agurtzeko Urduñako urteroko bertso saioa (Abarkas, Uxue Alberdi, Asier Rubio, Oihana Bartra, Txaber Altube eta Jone Uria), urtarrilari ongi-etorria emateko Amurrioko bectekada (Aitor Sarriegi, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze eta Alaia Martin)... Horri 2017ko Arabako Bertsolari Txapelketa gehitu behar

zaio; urtarrilaren 21ean Aretako Tunel jatetxean aurkeztuko dena. Eta, Bertso-Korrika.

Jarri ditugu freskatzen patxaran eta botilak, aldatu dizkiogu gitarrari sokak, berotu ditugu ahotsak (hobetu ez)... Bertxoko irratsaioek Serapiok repeatzea lortu bazuten uhinetan, antenatik kanpo, Aiaraldekoek zer ez! Eta hala bedi!

Hurrengo Berri Paperean Izarrako bertso-eskolaren artikulua.

AGENDA!



ZERNAHI

A TALDEA



Xabi Igoa

Orain urte batzuk ba zen telebistan telesail bat gazteleraz "El equipo A" bezala ezagutzen zena.

Gurean, ez dira sarri telebistan agertzen baina telesail baterako moduko gidoia osatzeko pertsonaiak ditugu Araba osoan zehar barreiatuak, bertso eskolaz bertso eskola.

Zaharren esperientzia, gaztetxoenen indarra eta umore ona bildu dira 11 pertsonako taldean. Telesaieko pertsonaiekin alderaturik:

ANIBALen pururik ez dute erretzen baina hark baino estrategia landuagoa dute.

M-Aren indarra gutxi da hauen mihien indarraren aurrean.

FENIX baino atraktiboagoak dira.

Eta nola ez, MURDOCK baino zoroago daude, hori ere behar izaten da eta.



Ondo pasa Gabonak eta Urte berri on!



Eta gogoratu: urtarrilaren 21ean, larunbata
**BATZAR OROKORRA ETA
TXAPELKETAREN AURKEZPENA
LAUDION**